

PRENTSA OHARRA

Akatsik gabeko ekoizpen aeronautikoa, adimentsuagoa eta jasangarriagoa

- *Innotool europar proiektuaren esparruan, egitura aeronautikoak mihiztatzeko erakusle berritzaile bat garatu du Tekniker zentro teknologikoak*
- *Metrologia- eta sentzorizazio-teknologiaren bidez, muntaketa-lanetan zehaztasuna eta kadentzia handitzen dituen eta energia- eta material-aurrezpena areagotzen duen soluzio automatizatua lortu du.*
- *Ekimenean Aitiipek ere parte hartu du, Europar Batzordeak finantzatu du eta sektoreko enpresen prozesuak hobetzen lagunduko du.*

[[Eibarren, 2023ko urtarrilaren 26an](#)] - Sentzorizazioko, metrologiako edo fabrikazio gehigarriko teknologia berriak erabat aldatzen ari dira ekoizpen industrialeko prozesu arruntenak. Sektore aeronautikoan integratzeak aukera emango du ingurune adimendun kolaboratiboagoetarantz aurrera egin ahal izateko, eta muntaketa-lanen doitasun-mailak, segurtasuna eta jasangarritasuna hobetzeko.

Testuinguru horretan, Tekniker zentro teknologikoak, Basque Research and Technology Alliance (BRTA) erakundeko kide denak, azken belaunaldiko materialekin egitura aeronautikoak mihiztatzeko erakusle berritzaile bat garatu du Innotool europar proiektuaren esparruan.

“Fuselajearen atzeko aldea mihiztatzeko tresneria-multzo baten diseinuan lan egin dugu. Tresneria-multzoa Advanced Rear End izeneko egitura bat da, eta irismen labur, ertain eta luzeko aire-garraioaren beharretarako tamaina handiko aireontzi komertzialetan erabiltzen da”, azaldu du Gorka Kortaberria Teknikerreko ikertzaileak.

Zentro teknologikoko taldeak sistema mekatronikoen garapenean aplikatu du bere ezagutza, metrologia- eta sentzorizazio-teknologiaren laguntzarekin, azken belaunaldiko muntaketa- ekipamendua lortzeko. Prototipoak frogatzen du prozesu horiek ere automatizatu daitezkeela eta, gainera, akatsik gabeko ekoizpena lor daitezkeela, adimentsuagoa eta jasangarriagoa.

Tresna sentsorizatuak eta simulazioak

Teknikerrek diseinatu eta fabrikatutako prototipoak sentsore adimendunak ditu muntaian laguntzeko, mugimendu zehatz eta seguruak egitea ahalbidetzen dutenak, osagaiak manipulatzeko esfortzuak eta arriskuak minimizatuz. Halaber, muntatu beharreko elementuen kokapena egokia dela bermatzen duten sentsoreak ditu. Zehazki, ikusmen-, indar- eta desplazamendu-sentsoreak dira. Sentsore-sare hori kanpoko esparru metrologiko batekin osatzen da, makinaren mugimenduak zehaztasun handiz bideratzeko.

Ekipamenduan txertatutako erreminta-multzo horri esker, muntaketa-prozesuaren zehaztasuna hobetzeko eta bizkortzeko aukera ez ezik, produktu aeronautikoaren mihizatze-faseak une oro monitorizatzeko eta kontrolatzeko aukera ere ematen du. Horrela, kostuak murriztea eta energia eta materiala aurrezteko lortzen da, Europar Batasunak fabrikazio jasangarrian ezarritako helburuekin bat etorritik.

Gainera, Innotool (INNOvative TOOLing design) ekimenaren esparruan, [Aitiip](#) zentro teknologikoak termokonformazioaren eta fabrikazio gehigarriko tekniken bidez pieza termoplastikoak fabrikatzeko erakusle bat sortu du. Teknikerrek pieza aeronautiko handien konformazioaren kontrol termikorako estrategia berriak diseinatu eta garatu lagundu du.

Europako Batzordearen Clean Sky 2 programak finantzatutako Europako proiektuan garatutako bi erakusleek sektoreko goi-mailako enpresen ekoizpen-prozesuak hobetzen lagunduko dute, hala nola [Aernnovaren](#) ekoizpen-prozesuak.

Teknikerri buruz

Tekniker Fabrikazio Aurreratuan, Gainazalen eta Materialen Ingeniaritzan eta ekoizpenerako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-aren bidez, gizarte osoari hazkundera eta ongizatera eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

Informazio gehiago izateko:

GUK ▶ **Unai Macias** unai@guk.eus | Tel. 690 212 067